

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2020KO MAIATZA

Euskal AEko industria-jarduera % 27,8 jaitsi da 2020ko maiatzean


Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2020ko apirila, industria-sektoreak % 16,5 egin du gora ekoizpenean

Euskal AEko industria-ekoizpenak % 27,8 egin du behera 2020ko maiatzean 2019ko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek egindako datuen arabera. Jaitsiera hori nabarmen txikiagoa izan da joan den apirilean baino, noiz urte arteko konparazioan galera % 39koa izan baitzen.

Maiatza konparatuta aurreko hilarekin, 2020ko apirilarekin, Euskal AEko industria-ekoizpenak % 16,5 egin du gora, urtaro-eraginak zuzendu ondoren. Hilabete lehenago, apiriletik martxora bitarteko konparazioak % 25,1eko beherakada izan du.

2020ko lehen bost hilabeteetako balantzea industria-jardueraren % 16,5eko uzkuertze metatuarekin ixten da.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko maiatzeko indizearen bilakaera, 2019ko maiatzarekin alderatuta, negatiboa da industria-sektore handi guztietan. *Bitarteko ondasunak* % 38,9 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunak*, berriz, % 30,9. Lehenengoan artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa; bigarrenen artean, berriz, ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea edo aireontziak edo itsasontziak egitea.

Kontsumo-ondasunak, oro har, % 20,0 jaitsi dira urtetik urtera, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 32,1 jaitsi baitira, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak*, berriz, % 17,2 jaitsi baitira. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak, etxeko tresnak edo produktu elektronikoak fabrikatzeko jarduerak daude. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Energiak % 14,2 egin du behera, behin zuzenduta dagozkion egutegi-efektuak. Sektore horretako jardura azpimarragarrien artean energia elektrikoa hornitzea eta petrolioaren fintzea daude.

Hilabete arteko aldakuntzak, 2020ko maiatza 2020ko apirilaren gainean, berriz, bilakaera positiboa izan du industria-sektore handi guztietan, *Energiaren* kasuan izan ezik, % 5,3 jaitsi baita urtaroen arabera ondorioak zuzendu ondoren. *Ekipo-ondasunak* % 34,8 hazi dira, *Bitarteko ondasunak* % 15 eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 6,1 igo dira, tamaina desberdineko bi hazkunderekin konbinatuta: *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 25,7 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak*, berriz, % 3,1.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-42,1
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-11,7
09 - Kautxua eta plastikoak	-46,6
13 - Makineria eta tresneria	-22,5
14 - Garraio-materiala	-35,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-21,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-29,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-20,1

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2020ko maiatzean jaitsiera handienak izan dituztenak, urtetik urterako aldaketetan, honako hauek izan dira: *Kautxua eta plastikoak* (% 46,6 uzkurdu da), *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 42,1 murriztu da) eta *Garraio-materiala* (% 35,6 behera), egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren. Sektore garrantzitsuen artean, *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* da, % 11,7ko murrizketarekin, beherakada txikiena izan duena.

Lurraldeetan, Industria Produkzioaren Indizearen maiatzeko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Hala, Araban % 30,2ko beherakada gertatu da, Bizkaian % 28,4koa eta, azkenik, Gipuzkoan % 25,7koa.

Hilabete arteko terminoetan, 2020ko maiatza 2020ko apirilaren aldean, betiere urtarotarako eraginak zuzendutako terminoetan, ekoizpena % 27 hazi da Araban, % 14 Gipuzkoan eta, azkenik, % 13,7 Bizkaian.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Maiatza

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mai2020 / Mai2019	A(Mai2020) / A(Mai2019)(*)	Mai2020 / Api2020	Api2020 / Mar2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-27,8	-16,5	16,5	-25,1
Araba/Álava	-30,2	-19,7	27,0	-29,9
Bizkaia	-28,4	-15,6	13,7	-26,6
Gipuzkoa	-25,7	-15,3	14,0	-20,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-20,0	-9,0	6,1	-15,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-32,1	-19,0	25,7	-29,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-17,2	-6,6	3,1	-13,0
Ekipo-ondasunak	-30,9	-20,2	34,8	-32,5
Bitarteko ondasunak	-38,9	-22,8	15,0	-28,2
Energia	-14,2	-1,5	-5,3	-10,2

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

COVID-19AREN KRISIAK MAIATZEKO IPI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Gerora hartutako aparteko neurrien ondorioz, industria-establezimendu askoren ohiko jarduera partzialki edo guztiz geldiarazi da. Maiatzean gaildi sektorea pixkanaka suspertzen ari dela ikusi da.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, maiatzeko indizea, zeinen informazioa ekainean zehar jaso den, laginaren % **94,10ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62